

Literaturaren ahalak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



DOM CAMPISTRON

Zuzengabekeriak gainezka den mundu honetan, egoera oldargarriz inguraturik gaudela, behin eta berriz galdegiten diot ene buruari: zer ahal du literaturak, hoberantz egin dezagun? Literaturan murgilduta egotea ez ote da harresi itsu batzuen gibelean ezkutatzea eta irudimenez baizik ez ekitea, hainbeste nahigabe eta okerkeriaren aurka konkretuki lan egin beharrean? Literatura ahaltsua dea? Ahalduntzen ote gaitu?

Europako kultur eremu nagusi edo garaileetan, pentsatzen zen, aro erromantikoan, literaturak bat egiten zuela boterearekin, eta berehalako eragina ukan zezakeela jendartean. Frantzian, bereziki, Lamartine edo Hugo bezalakoek sinesten zuten literaturaren bidez bermatuko zirela ideia sozio-politiko aurreratuenak, bai beren herrian, bai mundu osoan. Berantago, surrealitek pentsatu zuten mundua benetan kanbia zezakeela literaturak.

Baina XX. mendeak literatura-eraginkortasunaren baitako fedea zalantzan ezarri zuen. Korronte absurdoko autoreek erakustera eman zuten literatura indargabea dela. Kritikari batzuen aburuz, berriz, literaturak oraino dauka eragina, gutxienez errepresentazio kolektiboak molda-

tzeko, onera zein txarrera. V. Berthelie ikerlariak, adibidez, erakusten du mundu osoko nazionalistak beldurrarazten dituen etorkin uholde mitoa eraikitzen lagundu duela literaturak: R. Camus ("*le grand remplacement*" edo "ordezkatzeko handia" adierazpidearen asmatzailea), Y. Gandon, L.-F. Céline, J. Raspail, E. Cioran, R. Millet bezalako idazleek ahalbidetu dute, beren obrei esker, arrazakeriaren presentzia indartsua, Frantzian, Berthelieren ustez. Alderantziz, Kafkak zioen idazleek arma paregabeak dauzkatela intolerantzia eta injustiziaren kontra borrokatzeko.

Eta bazter alorrean, galtzaileen esparruan, zer? Menturaz, kultur esparru handietan baino garrantzi sozial, politikoa eta sinboliko handiagoa dauka literaturak, kontra-botere leku indartsua izan daitekeelako. Hala nola literatura performatiboa hor dugu: Antton Lukuk irakasten zuen bertsolaritza funtzioetarik bat dela, hain zuzen ere, botere nagusiaren kontra jartzea. Gogoan dut ere Perun sortu den "*lucha libro*" gudu literarioa, *catch*-aren eredu oinarritua: bi idazle testu bana inprobisatu behar dute, epaile den publikoaren aitzinean, joko-gidari baten agindupean. Entzule-ikusleak li-

luratu behar dituzte performatzaileek, argitaratua izateko baimena irabazteko. Perun, dio Christopher Heaney-k, gudulari gehienak gazteak eta emazteak dira, eta literatura-ikuslariak erabiltzen dute beren ahotsa adierazteko.

Gurean, literaturak balio du ere kontsolatzeko, dio Xabier Letek. Balio du gogoratzeko, memoria elikatzeko, iragana gureganatzeko. Balio du gure mitoak eraikitzeko. Balio du gure oraina islatzeko, salatzeko eta etorkizuna amesteko.

Balio du, azkenean, muga politiko, ideologiko, linguistikoetatik haratago loturak egiteko, hots, pasatzaile izateko (P. Jaccottet-ek zioen bere ofizioa zela "pasatzaile" izatea). Hori dute xede analogiari, metaforari edo itzulpeningintzari protagonismo bera ematen dioten idazleek. Ikus, narrazioaren eremuan, P. Zubizarretaren *Usoa*, *hegan etorritako neskatoa*, zointan Kasai, haur adoptatua, txori migratzaileari konparatua den; edo A. Arzallusen *Miñan*, pularrez pentsatzen duen afrikar baten frantseseko kontaktaren euskarazko testu idatzia dena.

Ea ba gure literatura ahaltsu eta ahalduntzaileago egin genezakeen oraindik, mundu zentzudunagoa eraikitzeko. ●